

HATSA DANTZA SAREAN

Zuzendaritza : Julien Corbineau
Koregrafiak : Julien Corbineau, Nathalie Verspecht, Laetitia Cheverry
Eszenaren irudikapena : Annie Onchalo
Musika : Jean-Victor Suzanne
Jantziak : Anne-Marie Subias, Maider Corbineau
Argiak : Julien Delignières
Soinuak : Didier Teillagorry
Argazkiak : Gabrielle Duplantier

Dantzariak eta musikariak

Jérôme Arhancet, Luana Casteigts, Tamara Casteigts, Josu Corbineau, Naia Corbineau, Lore Corbineau, Elorri Darthayette, Ainhoa Elissalde, Oihana Fermond, Iban Garat, Aurélien Labenne, Vincent Loubet, Ana Olazagasti, Jon Vernier.

Yoann Arroste, Paul Nieto, Mayalis Poulet, Ines Soubeste, Jean-Victor Suzanne.

Iraupena : 1 h



Argazkiak © Gabrielle Duplantier

DANTZA SAREAN

HATSA





HATSA

Etxe handi baten ganer zabal batean, puxka zaharren artean, panpin itxurako pertsonaiak agertzen dira. Hats magiko bati esker, pixkanaka animatzen eta biziari lotzen dira. Hastapen batean haien mugimenduak mekanikoak iruditzen bazaizkigu ere, arin eta emozionez beteta bilakatzen dira ikusgarrian zehar. Pertsonai bitxi horien ekoizpenean jarraitzeko, misterioz betetako musika bat entzun dezakegu. Dantza eta musikaren indar magikoaz berpizten da betirako bizigabe pentsatzen genuena. Hala da espazioan barna doan bizi hatsa, gure bizitzak gobernatzen dituzten oldar handi ziklikoen gainean eragina duen hori. Ikuslea giro guziz poetikoan sartarazirik, giza egoeraz gogoeta egitera gonbidatua da ere.

SORKUNTZA

Koreografiak hamabi dantzarientzat sortuak izan dira. Taulagainean, bost musikari ari dira ere : biolina, biolontxelo, akordeoia, klarinetea eta perkusioak. Sorkuntza berezi honetan, euskal dantza, baita ere dantza garaikideko estetikak erakusten dira. Dantzariak teknikaren menperatzeaz gain, gorputz adierazmen zehatza garatzen dute dantzatutako mugimenduaren kalitateari arta berezi bat eskainiz. IDB ko « Dantza Sarean » dantza erakaskuntza baliabidean formatuak izan dira, IDB eta Maurice Ravel Kontserbatorioko euskal dantza, baita ere dantza klasiko eta garaikideko formakuntzak segituz.

SORKUNTZA TALDEA

Julien Corbinau

HATSA sorkuntza abiarazi duena da. Tipidanik euskal dantzan ari izan da, musika tresna ezbernikak ikasiz. Berantago bere formakuntza osatzen du dantza klasikoan, dantza garaikidean, antzerkian eta txotxongiloen erabileran. 2005etik goiti, artista batzuekin euskal dantzari buruzko egungo ikusmoldea eskaintzen duten ikusgarrien sortzeetan parte hartzen du. KSI taldearentzat, Izaki (2006), Gauzak Biltzen (2009) eta Neo Kotilun (2013) ikuskizunak sortzen ditu eta 2016an Dantza Sarean ari diren dantzarientzat Hatsa sortu du. Fisika eta kimika erakasle agregazioduna izanik, euskal dantzarien formakuntzari interesatzen da, euskal dantzan oinarritu formakuntzari, dantza klasikoan, dantza garaikidean eta antzerkian bermatzen denari. 2014an IDBko pedagogia taldearen arduradun bilakatzen da eta orduz geroztik Maurice Ravel Kontserbatorioarekin elkarlanean ari izan da. « Dantza Sarean » euskal dantza eskolen lehen sarea plantan emaiten parte hartzen du.

Nathalie Verspecht

Anverseko «Ecole Royale de danse» eskolako diploma badu eta dantza klasiko irakasle tituluduna da. 1994an Lausanneko lehiaketaren sari ohargarria eramaten du. Fama handiko konpainia batzuetan dantzari bilakatzen da, horietarika Flandriako Errege Baleta. 1998an Miarritzeko Malandain Baletan sartzen da. 2013 arte munduan gaindiko bira anitz talde honekin eginen du. Orduan Maurice Ravel Kontserbatorioan baita ere sektore pribatuan dantza klasikoa irakasten du. 2015az geroztik Basusarriko « Studio de Danse Côté Cour » estudioan dantzako klaseak emaiten ditu.

Laetitia Cheverry

Tipidanik dantza klasikoa ikasten du eta gero dantza garaikidea. 2003an ikusgarri arteetako lizentzia kausitzen du. 2005ean Ekuadorean dantza garaikide Konpainia Nazionalean sartzen da. Gero Eszena Arteen Fakultatean irakasten du eta Cuencako U Konpainia preprofesionalean irakasle bilakatzen da. 2008an dantza garaikidean diploma eskuratu eta gero Maurice Ravel Kontserbatorioan sartzen da. 2016az geroztik « Zabala » ikasbidea segitzen duten euskal dantzariekin ari da dantza garaikidea erakusten.

Annie Onchalo

Bordaleko « Beaux Arts » eskolako formakuntza egin ondoan, Annie Onchalo artistak eskualdeko toki batzuetan bere lanak erakusten ditu. Antzerkiko ikusgarrietan parte hartzen du antzerkirako materialak, dekoratuak, mozerroak sortuz edo eskualdeko konpainia anitzentzat eszenografia lana betetzen du. Txotxongiloak egiten ditu eta zenbait konpainiarekin elkarlanean ari da. Antzokiko taulan aktoreen jantziez eta teknikaz arduratuz « Le temps d'aimer », « Les Translatines » eta Hendaiaiko « Le Mai du Théâtre » festibaletan esku hartzen du.

Jean-Victor Suzanne

Maurice Ravel Kontserbatorioan bederatzi urtezko perkusio ikasketak egin ondok, klarinete klasean izena ematen du eta ikasketa ibilbidea goiko zikloraino segitzen du. 2014an « UV Régionale de Formation Musicale » diploma lortzen du. Ikastaro anitzei esker bere heziketa osatzen du musika mota ezberdinak praktikatuz hala nola musika klasiko, jazz musika, musika garaikidea, klezmera, Balkanikoa.

